

<p style="text-align: center;">INFORMAZIO-OHARRA</p> <p style="text-align: center;">ADMINISTRARIEN LEP</p>	<p style="text-align: center;">NOTA INFORMATIVA</p> <p style="text-align: center;">OPE ADMINISTRATIVAS/OS</p>
<p><u>Titulazioaren alegazioa parte hartzeko eskabidean</u></p> <p>Deialdian onartua izateko alegatu behar den titulazioari buruz hainbat kontsulta jaso direnez, honako hau argitu behar dugu:</p> <p>Udalaren webgunean parte hartzeko eskaera egiterakoan, titulazio akademikoari buruzko atalean bi lauki daude.</p> <p>Lehenengoan, menu zabalgarri bat dago, aukera bakartzat <i>"Batxilergoa, teknikoa edo baliokidea"</i> duena; beraz, deialdian parte hartu ahal izateko <u>gutxieneko titulazio-mailari</u> egiten dio erreferentzia.</p> <p>Bigarrean, bete beharreko eremu bat dago, eta deialdian parte hartzeko aukera ematen duen titulazio baten izen zehatza teklatu behar da; beraz, <i>"Batxilergoa, teknikoa edo baliokidea"</i> edo goragoko mailakoa izan daiteke (gradua, lizentziatura, diplomatura...). <u>Aipatutako maila hauetako edozeini dagokion titulazio bat duela adieraziz gero, pertsona hori deialdian onartua izango da.</u></p> <p><u>Parte hartzeko eskabidean adierazten den titulazioak ez du eraginik izango merezimenduen balorazioan.</u> Lehiaketa-fasean, merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeke epea irekiko da (titulazio akademiko ofizialak barne), eta une horretan alegatzen eta egiaztatzen diren titulazioak hartuko dira kontuan, parte hartzeko eskabidean orain adierazten dena kontuan hartu gabe.</p>	<p><u>Alegación de la titulación en la solicitud de participación</u></p> <p>Ante la multitud de consultas recibidas en relación a la titulación que debe alegarse para ser admitido/a en la convocatoria, se aclara lo siguiente:</p> <p>A la hora de realizar la solicitud de participación por la página web del Ayuntamiento, en el apartado relativo a la titulación académica hay dos casillas.</p> <p>En la primera hay un desplegable que tiene como única opción <i>"Bachiller, Técnico/a o equivalente"</i>, por lo que hace referencia al <u>nivel mínimo de titulación</u> para poder participar en la convocatoria.</p> <p>En la segunda hay un campo a rellenar en el que se debe teclear el nombre exacto de una titulación que permita participar en la convocatoria, por lo que puede ser del nivel <i>"Bachiller, Técnico/a o equivalente"</i> o superior (Grado, Licenciatura, Diplomatura,...). <u>Con la declaración de poseer una titulación de cualquiera de esos niveles, la persona será admitida en la convocatoria.</u></p> <p><u>La titulación que se señale en la solicitud de participación no afectará a la valoración de los méritos.</u> En la fase de concurso, se abrirá un plazo para alegar y acreditar los méritos (incluidas las titulaciones académicas oficiales) y se tendrán en cuenta las titulaciones que se aleguen y acrediten en ese momento, con independencia de lo que se señale ahora en la solicitud de participación.</p>

Donostian, 2021eko martxoaren 3an.

Hautaketa Zerbitzuko Burua

Alfonso Jiménez Grandes